

CONVENIO ESPECÍFICO PARA LA DETERMINACIÓN DE LAS CONDICIONES ESPECÍFICAS DE LA ENCOMIENDA DE GESTION

UBICACIÓN, DISEÑO, CONSTRUCCION Y EXPLOTACION DE LAS INSTALACIONES NECESARIAS QUE VAN A DAR SERVICIO A LA PLANTA DE VALORIZACION ENERGETICA Y EL RESTO DE INFRAESTRUCTURAS QUE VAN A DAR SERVICIO A LA MISMA

En Hernani, a 29 de julio de 2016

COMPARECEN

De una parte, D. Aitor Aldasoro Iturbe, en calidad de Vicepresidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, en virtud de acuerdo de la Asamblea General de fecha 26 de octubre de 2015.

De otra parte, D. Jose Ignacio Asensio Bazterra, en calidad del Presidente del Consejo de Administración de Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U. (en adelante GHK, SA), actuando en virtud de acuerdo del Consejo de Administración de 16 de mayo de 2016.

INTERVIENEN

Todos ellos en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para el otorgamiento del Convenio para la Encomienda de Gestión, y al efecto

EXPONEN

Con fecha 3 de junio de 2010 se aprobó por la asamblea del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa el Convenio Marco por el cual éste le encomendó a GHK, SAU como medio propio y servicio técnico del propio Consorcio, el encargo de realizar en su propio nombre y por cuenta del Consorcio el servicio de gestión en alta de residuos urbanos en los términos descritos en su objeto social. En el Convenio Marco se configuran las relaciones entre el

Consortio de Residuos de Gipuzkoa y GHK y se define el contenido concreto de la encomienda de gestión a asumir por GHK que comprendería el conjunto de actividades necesarias o convenientes para la financiación, creación y explotación de las infraestructuras previstas en el PIGRUG 2002-2016.

Por tanto, en dicho Convenio Marco el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa le encomendó a GHK, S.A.U. la prestación de la totalidad de las funciones que el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa tenía atribuidas en relación a la gestión en alta de los residuos, funciones que GHK, SAU debía prestar en exclusiva, por lo que a partir de dicho momento pasaba a ser GHK, SAU quien prestara, en nombre propio y por cuenta del Consorcio, el servicio de gestión de residuos en alta a la Mancomunidades que forman el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, siendo, por tanto, quien factura a las mismas por los servicios prestados, todo ello bajo el control y fiscalización del Consorcio.

GHK, SAU, en cumplimiento de la encomienda realizada por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa licitó, adjudicó y formalizó el denominado contrato mixto para la construcción, puesta en marcha y explotación del Centro de Gestión de Residuos de Gipuzkoa (CGRG), que fue resuelto por mutuo acuerdo en fecha 13 de noviembre de 2013, y ratificado por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa el 25 de noviembre de 2013, lo que supuso de facto el abandono del proyecto y ha colocado a GHK, SAU en una situación económico-financiera de difícil solución.

Como consecuencia de esta situación económico-financiera y a fin de evitar la consolidación presupuestaria de la inversión asociada al Centro de gestión de Residuos de Gipuzkoa y ejecutar las nuevas infraestructuras en un contexto de desconsolidación del endeudamiento a efectos del cumplimiento de las obligaciones relativas al control de déficit público y endeudamiento de las Administraciones Públicas, la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa en fecha 22 de marzo de 2016 adoptó el acuerdo de modificar el modo en el que venía gestionando el servicio asumiendo el propio Consorcio parte de la

gestión del servicio de su competencia, lo que conllevó a la modificación del Convenio Marco.

Como consecuencia de esta modificación en la forma de gestión del servicio, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa ha decidido acudir a la figura del contrato de concesión de obras públicas para la financiación, diseño, construcción, mantenimiento y operación de la Planta de Valorización Energética y el resto de infraestructuras vinculadas a la misma que formarán el denominado Complejo Medioambiental de Gipuzkoa.

De acuerdo a esta nueva estructura, GHK pasará a prestar sus servicios íntegramente al Consorcio, y será el Consorcio quien prestará el servicio de gestión en alta a las Mancomunidades.

En la cláusula primera del Convenio Marco vigente se establece que la encomienda de gestión que asume GHK comprenderá el conjunto de actividades necesarias o convenientes para la financiación, creación y explotación de las infraestructuras que sean precisas para el desarrollo de la encomienda así como el control de los contratos de concesión administrativa que, en su caso, suscriba el Consorcio, y que se concreta, entre otras, en las actuaciones siguientes:

- La ubicación, diseño, construcción y explotación de las instalaciones necesarias que van a dar servicio a la Planta de Valorización Energética y el resto de infraestructuras que van a dar servicio a la misma.

Asimismo la citada cláusula primera del Convenio Marco establece que, entre otras, la actuación descrita será objeto de un convenio específico en el que se determinen las condiciones de la encomienda de gestión, cuyo contenido mínimo se regula en la cláusula decimosexta del propio Convenio Marco.

A la vista de lo dispuesto en la cláusula decimosexta del Convenio Marco y de acuerdo con los antecedentes anteriores, ambas partes otorgan el presente convenio-encargo específico para determinar las condiciones de la encomienda de gestión, con arreglo a las siguientes

CLAUSULAS

PRIMERA.- OBJETO, ALCANCE Y PLAZO

- OBJETO: El presente convenio-encargo específico tiene por objeto determinar las condiciones de la encomienda de gestión para la ubicación, construcción y explotación de las instalaciones necesarias que van a dar servicio a la Planta de Valorización Energética y el resto de infraestructuras que van a dar servicio a la misma, refiriéndose la presente encomienda específica concretamente al conjunto de instalaciones e infraestructuras que resulten necesarias para garantizar el adecuado suministro eléctrico de los ámbitos de Eskuzaitzeta y Arzabaleta.

- ALCANCE: Se encomienda a GHK para que proceda a la realización del proyecto, gestión del suelo, construcción y puesta en servicio del resto de actuaciones que resulten precisas para dotar de las oportunas instalaciones e infraestructuras eléctricas que han de garantizar el suministro eléctrico a los ámbitos de Eskuzaitzeta y Arzabaleta, así como cuantos documentos sea preciso otorgar para llevar a cabo el fin señalado.

Las funciones a realizar por GHK, de manera enunciativa y de acuerdo con la información hoy existente, serían las siguientes:

- Dotación de la Nueva Subestación Eléctrica 132/30 kV con Sistema de 132 kV Simple Barra Partida de intemperie híbrido, con un Transformador de Potencia de 60

MVA de instalación exterior y Sistema de 30 kV en Simple Barra Partida con aislamiento de SF6.

- Ampliar la línea eléctrica de 30kV ejecutada por el ayuntamiento hasta alcanzar los requerimientos que exija la subestación para su utilización como línea de socorro.
- Nueva línea de 132 kV, doble circuito, en tipología aéreo para la interconexión de la ST con la red existente por medio de doble derivación en "T" desde los circuitos actuales Hernani – Azpeitia 1 y 2.
- Encargo y contratación de cuantos Estudios y Proyectos resulten precisos vinculados a la ejecución de aquellas instalaciones y para garantizar tal suministro eléctrico.
- Gestión y obtención de cuantos permisos y autorizaciones resultaren procedentes por parte de entidades públicas o privadas para la ejecución de tales instalaciones.
- Gestión de cuantos expedientes de expropiación forzosa o, en su caso, acuerdos resultaren necesarios para garantizar la ejecución de tales infraestructuras.
- PLAZO: El plazo de vigencia de esta encomienda en cuanto a la realización del proyecto, gestión del suelo, construcción y puesta en servicio del resto de actuaciones que resulten precisas para dotar de las oportunas instalaciones e infraestructuras eléctricas que han de garantizar el suministro eléctrico a los ámbitos de Eskuzaitzeta y Arzabaletaserá de 4 años desde la entrada en vigor de la presente encomienda específica.

SEGUNDA.- OBLIGACIONES DE GHK, SAU EN RELACION CON LA DIRECCIÓN, INSPECCION Y RECEPCION DE LAS PRESTACIONES OBJETO DE ENCARGO.

GHK tendrá las obligaciones que se exponen a continuación.

En todo caso, GHK deberá adoptar todas las medidas que fuesen necesarias para evitar la interrupción de la ejecución del objeto del contrato y garantizar así su continuidad, en especial, en los supuestos de incumplimientos del contratista, con derecho a repercutir a éste los gastos y costes en los que incurra y, en su caso, compensar éstos con los importes que le adeudara por cualquier concepto.

1 Dirección Facultativa de la Obra

GHK ostentará la Dirección Facultativa de la Obra que se llevará a cabo con sus propios servicios o por terceros contratados al efecto.

2. Inspección, vigilancia y control

1. GHK ejercerá las funciones de inspección, vigilancia y control sobre el cumplimiento de las obligaciones del contratista y deberá inspeccionar las obras, instalaciones, locales y documentación relacionada con el objeto del contrato.
2. GHK se reservará la facultad de realizar, en cualquier momento, las inspecciones, auditorías, controles y, en general, cuantas actuaciones de seguimiento considere oportunas, las cuales se llevarán a cabo por sus propios servicios o por terceros contratados al efecto.
3. La persona o personas que designe GHK para realizar la supervisión, inspección y seguimiento, ejercerán las siguientes funciones:
 - Vigilar, controlar y velar por el adecuado cumplimiento de las obligaciones del contratista.

- Solicitar al contratista la información necesaria, incluida la de carácter administrativo, financiero y contable.
- Informar a GHK de las incidencias que surjan en el desarrollo del contrato y realizar los informes pertinentes.

3.Recepción de las obras.

1. La comprobación material de la conformidad de las obras al Proyecto de Obras y demás documentos contractuales se realizará por GHK en el plazo de quince (15) días a contar desde que el contratista solicite por escrito la comprobación de las obras.
2. Si se comprueba la satisfactoria ejecución de las obras, se levantará el acta de recepción de las obras, firmada por el facultativo o los facultativos que pueda designar GHK, por el Director de Obra y por el Delegado de Obra del contratista, en la que se hará constar dicha circunstancia, dando traslado de ello a GHK
3. Si las obras resultasen incompletas o defectuosas, el facultativo o facultativos designados por GHK no firmarán el acta de recepción, haciendo constar en acta los defectos observados, detallando las instrucciones precisas para su solución y concediendo al contratista un plazo máximo improrrogable (que no será superior a un mes), en que deberán ser resueltas.

Si transcurrido dicho plazo el contratista no hubiera remediado las deficiencias puestas de manifiesto, se levantará nueva acta de ello, pudiendo GHK resolver el contrato por causas imputables al contratista, con incautación de la garantía, y sin perjuicio de las indemnizaciones por daños y perjuicios que correspondan.

GHK deberá informar periódicamente y, como mínimo, en las sesiones obligatorias del Consorcio sobre el cumplimiento de este convenio específico

TERCERA.- LAS PREVISIONES DEL PLAN ECONOMICO FINANCIERO SOBRE EL COSTE PREVISTO EN EL ENCARGO.

Dentro del plan económico financiero aprobado por la Sociedad, se contempla la realización del conjunto de instalaciones e infraestructuras que resulten necesarias para garantizar el adecuado suministro eléctrico de los ámbitos de Eskuzaitzeta y Arzabaleta.

El presupuesto estimado para estas infraestructuras asciende a 8,5 millones de euros. De los cuales el 40% corresponde al Ayuntamiento de San Sebastian en virtud de la adenda aprobada el 22 de marzo de 2016.

Tal y como se ha comentado anteriormente, el plan económico contemplaba la realización del conjunto de instalaciones e infraestructuras que resulten necesarias para garantizar el adecuado suministro eléctrico de los ámbitos de Eskuzaitzeta y Arzabaleta, por lo tanto, se tuvo en cuenta el presupuesto estimado a la hora de pedir la financiación.

La facturación de los servicios que GHK prestará en cumplimiento de este convenio específico al Consorcio vendrá determinada por el coste total del servicio.

En todo caso, se aplicará lo dispuesto en la cláusula decimocuarta del Convenio Marco relativa a las obligaciones formales que GHK, SAU debe cumplir en relación a sus presupuestos y las cuentas anuales.

CUARTA.- LAS OBLIGACIONES DE GHK, SAU DE ASEGURAMIENTO DE LAS OBRAS Y PRESTACIONES ENCOMENDADAS.

GHK, SAU preverá en las condiciones para la contratación de las obras y servicios objeto de la encomienda, que los adjudicatarios se responsabilicen de todos los daños que se ocasionen a causa de la ejecución de las obras y servicios cualquiera que sea su naturaleza y volumen.

Con independencia de los términos establecidos en el contrato, GHK obligará a que el Adjudicatario contrate a su cuenta, para todo el período que duren los trabajos y periodo de garantía las pólizas de seguro que se establecen seguidamente, para los trabajos objeto de esta encomienda, en las que se incluirá como asegurados tanto a GHK como a la empresa contratista, subcontratistas y a la dirección de la obra, así como a todas las partes intervinientes en la obra. GHK determinará los beneficiarios, entre los que podrán estar las entidades financieras.

- a. **Seguro de Responsabilidad Civil** que cubra la responsabilidad derivada de los daños y perjuicios causados a terceras personas y sus bienes como consecuencia de la ejecución de las obras y servicios encomendados.
- b. **Seguro de Todo Riesgo Construcción** que cubra los daños a la propia obra e instalaciones
- c. **Seguro de Responsabilidad Medioambiental**.
- d. **Seguro de Accidentes de Trabajo y de Seguros Sociales del personal**, con arreglo a la normativa vigente.
- e. Serán a cargo del Adjudicatario los costes de los **seguros de los transportes de materiales, de equipos y de herramientas** propiedad del Adjudicatario necesarios para cumplir el contrato, así como de los **daños a la maquinaria, equipos, medios de construcción, instalaciones provisionales de obra y bienes de cualquiera de los participantes, incluidos efectos personales**. En consecuencia se preverá que el Adjudicatario exonere expresamente y en su totalidad cualquier acción de responsabilidad contra GHK.
- f. **Responsabilidad Civil de suscripción obligatoria para todos los vehículos** que sean utilizados en la ejecución de la obra y servicios encomendados y estén sujetos a la

Ley de Uso y Circulación de Vehículos a Motor, así como cualquier otro seguro, relacionado o no con la obra, que sea exigible según la legislación aplicable a lo largo del contrato.

QUINTA.- FECHA DE ENTRADA EN VIGOR DE ESTE CONVENIO ESPECIFICO

Este convenio entrará en vigor el día de la firma del mismo.

SEXTA.- RECEPCION DE LAS OBRAS E INSTALACIONES POR GHK,SAU

De acuerdo con el carácter de sociedad mandataria con el que GHK, SAU actúa en cumplimiento de las encomienda del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, la recepción de las obras del conjunto de instalaciones e infraestructuras que resulten necesarias para garantizar el adecuado suministro eléctrico de los ámbitos de Eskuzaitzeta y Arzabaleta, se entenderá hecha por cuenta del Consorcio, siendo éste quién lo adquirirá originariamente, sin perjuicio de que sea GHK, SAU quien en nombre propio exija a los contratistas adjudicatarios la correcta ejecución de los contratos de construcción y explotación de las infraestructuras y las consecuencias derivadas de eventuales incumplimientos.


Fdo: Jose Ignacio Asensio Bazterra

**Presidente del Consejo de Administración
de GHK, SAU**



Fdo: Aitor Aldasoro Iturbe

**Vicepresidente del Consorcio de
Residuos de Gipuzkoa**



KUDEAKETARAKO GOMENDIOAREN BERARIAZKO BALDINTZAK ZEHAZTEKO BERARIAZKO HITZARMENA

ENERGIA BALORIZATZEKO PLANTA ETA BERONEN ZERBITZUAN EGONGO DIREN GAINERAKO AZPIEGITURAK ZERBITZATUKO DITUZTEN BEHARREZKO INSTALAZIOEN KOKAPENA, DISEINUA, ERAIKUNTZA ETA USTIAKETA

Hernanin, 2016ko uztailaren 29an.

ELKARTU DIRA

Alde batetik, Aitor Aldasoro Iturbe jauna, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidenteordea, 2016ko urriaren 26ko Batzar Nagusian hartutako erabakiaren indarrez.

Bestetik, Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.ren (aurrerantzean, GHK, SAU) Administrazio Kontseiluko presidente gisa, Administrazio Kontseiluak 2016ko maiatzaren 16an hartutako erabakiaren indarrez.

PARTE HARTZEN DUTE

Izenpetzaile bakoitzak bere karguko eginkizunak betez, elkarri Kudeaketa Mandatuko Hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa aitortzen diotelarik;

ADIERAZTEN DUTE

2010eko ekainaren 3an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren batzarrak esparru hitzarmena onartu zuen. Horren bitartez GHK, SAUri agindu zion, Kontsortzioaren bitarteko propioa eta zerbitzu teknikoa izaki, bere izenean eta Kontsortzioaren kontura eramateko hiri hondakinen bideraketa-sareko kudeaketa-zerbitzua, bere xede sozialean deskribatutako baldintzetan. Esparru hitzarmenean itxuratzen dira Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta GHKren arteko harremanak, eta GHK-k bere gain hartu beharreko kudeaketa-mandatuaren eduki zehatza definitzen da; mandatu horretan GHHKPO 2002-2016an

aurreikusitako azpiegiturak finantzatu, sortu eta ustiatzeko beharrezko eta komenigarriak diren jarduerak sartuko lirateke.

Beraz, aipatutako Hitzarmen-Markoan, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak GHK,S.A.U.ri gomendio hau egin zion: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak hondakinen altako kudeaketarako esleituta zeuzkan zeregin guztiez arduratzea. Zeregin horiek GHK, SAUK bakarrik bete behar zituen, eta horren ondorioz, une horretatik aurrera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa osatzen duten Mankomunitateei hondakinen altako kudeaketa-zerbitzua eskaini behar ziona GHK, SAUK izan behar zuen, eta horrenbestez, hark berak fakturatu beharko zizkien eskaintako zerbitzuak, hori guztiori Kontsortzioaren kontrolaren eta fiskalizazioaren pean.

GHK, SAUK, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak egin zion gomendioa betez, Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroa (GHKZ) eraiki, martxan jarri eta ustiatzeko kontratu misto bat lizitatu, esleitu eta formalizatu zuen, 2013ko azaroaren 13an elkarren adostasunez suntsitua izan zena, eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak hala berretsi zuen 2013ko azaroaren 25ean; horrek de facto proiektua bertan behera geratzea ekarri zuen eta konpontzea zaila den egoera ekonomiko-finantzario batean utzi du GHK, SAU.

Egoera ekonomiko-finantzario honen ondorioz, eta Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroarekin loturik dagoen inbertsioaren aurrekontu-kontsolidazioa saihestu nahirik eta azpiegitura berriak zorpetzearen deskontsolidazio-testuinguru batean exekutatzeko asmoz, Herri Administrazioen zorpetzea eta defizit publikoa kontrolpean izateko betebeharren ondorioetarako, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Biltzar Nagusiak 2016ko martxoaren 22an ordura arteko zerbitzua kudeatzeko zeukan modua aldatzea erabaki zuen, Kontsortzioak bere gain hartu baitzuen berez zegokion zerbitzuaren kudeaketaren parte bat, eta horregatik, ezinbestekoa izan zen Hitzarmen Markoa aldatzea.

Zerbitzua kudeatzeko moduan egindako aldaketa dela-eta, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak erabaki du herri-lanen emakida-kontratua baliatzea Energia Balorizatzeko Planta eta beronekin loturik dauden gainerako azpiegiturak finantzatu, diseinatu, eraiki, mantendu eta operatibo jartzeko, instalazio horiek guztiak izanik Gipuzkoako Ingurumen Gunea osatuko dutenak.

Egitura berri honen arabera, GHK-k bere zerbitzuak osorik eskainiko dizkio Kontsortzioari; eta Mankomunitateei altako kudeaketa-zerbitzua eskainiko diena Kontsortzioa izango da.

Hitzarmen Markoaren lehen klausulak dio, ezen, Gomendioa garatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak finantzatu, sortu eta ustiatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren jarduera guztiak izango dituela jomugan GHK-k bere gain hartzen duen kudeaketarako gomendioak, bai eta Kontsortzioak –bidezkoa bada– izenpetuko dituen administrazio izaerako emakida-kontratuen gaineko kontrola ere, hau da, ondoko jarduketak, besteak beste:

- Energia Balorizatzeko Planta eta beronen zerbitzuan egongo diren gainerako azpiegiturak zerbitzatu dituzten beharrezko instalazioak kokatu, diseinatu, eraiki eta ustiatzea.

Halaber, Hitzarmen Markoaren lehen klausula aipatuak dio, besteak beste, azaldutako jarduketa berriazko hitzarmen baten jomuga izango dela, non zehaztuko baitira kudeaketarako gomendioaren baldintzak, zeinen gutxienezko edukia araututa baitago Hitzarmen Markoaren beraren hamaseigarren klausulan.

Hitzarmen Markoaren hamaseigarren klausulan ezarritakoa kontuan hartuta, eta aurreko aurrekariekin bat etorriz, bi alderdiek berriazko hitzarmen-gomendio hau egilesten dute kudeaketarako gomendioaren baldintzak zehazteko, betiere kontuan hartuta ondoko

KLAUSULAK

LEHENA.- HELBURUA, IRISMENA ETA EPEA

- **HELBURUA:** Berriazko hitzarmen-enkargu honek helburutzat dauka Energia Balorizatzeko Planta eta beronen zerbitzuan egongo diren gainerako azpiegiturak zerbitzatzeko dituzten beharrezko instalazioak kokatzeko, eraikitze eta ustiatzeko kudeaketarako gomendioaren baldintzak zehaztea; eta batez ere, berriazko gomendio honek jomugan du Eskuzaitzeta eta Arzabaleta eremuetan hornidura elektriko egokia bermatzeko beharrezkoak diren instalazio eta azpiegituren multzoa.

- **IRISMENA:** Proiektua, lurzoruaren kudeaketa, eraikuntza eta Eskuzaitzeta eta Arzabaleta eremuei hornidura elektriko bermatuko dieten instalazio eta azpiegitura elektriko egokiez hornitzeko beharrezkoak diren gainerako jarduketak martxan jartzea gomendatzen zaio GHKri, bai eta aipatu helburua lortzeko behar adina dokumentu egilestea ere.

GHKk bete beharreko zereginak, azalpen modura eta gaur egungo informazioaren arabera, ondokoak izango dira:

- 132/30 kV-ko Azpiestazio Elektriko Berri bat 132 kV-ko Sistema batekin (Barra Simple Partitua), Aterpez kanpoko eta hibridoduna, 60 MVA-ko Potentzia duen kanpoko Transformadore batekin eta 30 kV-ko Sistema batekin (Barra Simple Partitua); SF6 motako isolamendua erabiliko da.

- Udalak hedatutako 30 kV-ko linea elektriko zabalteza, larrialdietako linea gisa erabil dadin, azpiestazioak eskatzen dituen baldintzak bete arte.

- 132 kV-ko linea berria, zirkuitu bikoitzekoa, aireko tipologiaduna, ST eta egungo sarea "T" adar bikoitz baten bidez interkonektatzeko. Interkonexio hau Hernani-Azpeitia 1. eta 2. zirkuituetatik gauzatuko da.
- Instalazio horiek gauzatzeko eta aipatu argindar-hornidura bermatzeko beharrezkoak diren behar adina Azterlan eta Proiektu enkargatzea eta kontratatzea.
- Aipatu instalazioak gauzatzeko aldera, erakunde publiko zein pribatuen aldetik lortu beharreko behar adina baimen eta lizentzia izapidetzea eta eskuratzea.
- Aipatu azpiegituren instalazioak bermatzeko aldera, behar adina nahitaezko desjabetze-espeditante edo, hala badagokio, akordio-espeditante izapidetzea.
- EPEA: Eskuzaitzeta eta Arzabaleta eremuetan argindar-hornidura bermatzeko egin beharreko instalazio eta azpiegitura elektriko guztiak gauzatzeko eta proiektua, lurzorua kudeaketa, eraikuntza eta gainerako jarduketak martxan jartzeko, gomendio honek daukan indarreango epea 4 urtekoa izango da, berriazko gomendio hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.

BIGARRENA.- ENKARGU HONEN XEDE DIREN PRESTAZIOAK ZUZENDU, IKUSKATU ETA HARTZEKO GHK, SAU-REN BETEBEHARRAK.

GHKk ondoan azaltzen diren betebeharrak izango ditu.

Hala ere, GHKk bere esku dauden neurri guztiak hartu beharko ditu kontratuaren xede den exekuzioaren etendura saihesteko eta horren jarraitutasuna bermatzeko, batez ere kontratistaren ez-betetzeen kasuetan; ez-betetze horien gastuak eta kostuak kontratistari

jasanarazteko eskubidea izango du, eta hala badagokio, beste edozein kontzeptugatik zor dizkion diru-zenbatekoekin gastu eta kostu horiek konpentsatzeko eskubidea ere izango du.

1 Obraren Zuzendaritza Fakultatiboa

GHKk bere esku izango du Obraren Zuzendaritza Fakultatiboa, eta bere zerbitzu propioekin edo horretarako kontrataturiko hirugarrenen bidez egingo du.

2. Ikuskapena, zaintza eta kontrola

1. GHKk kontratistaren betebeharrak ikuskatu, zaindu eta kontrolatzeko eginkizunak beteko ditu eta kontratuaren xedearekin erlazionaturik dauden obrak, instalazioak, lokalak eta dokumentazioa ikuskatu beharko ditu.
2. Ikuskapenak, auditoriak, kontrolak eta, oro har, egoki deritzen behar adina jarduketa edozein momentutan egiteko ahalmena gordeko du beretzat GHKk, eta bere zerbitzu propioekin edo horretarako kontrataturiko hirugarrenen bidez egingo du.
3. Gainbegiratze-, ikuskatze- eta jarraipen-lanak egiteko GHKk izendatuko duen/dituen pertsonak/ek, ondoko zereginak beteko ditu/zte:
 - Kontratistaren obligazioak egoki betetzen direla begiratu, kontrolatu eta egiaztatu.
 - Kontratistari beharrezko informazioa eskatu (administrazio-, finantza- eta kontabilitate-izaerakoa barne).
 - Kontratua garatu ahala sor daitezkeen gorabeheren berri GHKri eman eta dagozkion txostenak egin.

3. Obren harrera.

1. Obra Proiektuari egin beharreko obren adostasunaren gaineko egiaztapen materiala eta gainerako kontratuzko dokumentuak hamabost (15) eguneko epean egingo ditu GHKk, kontratistak obren egiaztapena idatziz eskatzen duenetik zenbatzen hasita.
2. Obrak zuzen gauzatzen ari direla egiaztatzen bada, obren harrera-akta jasoko da, GHKk izenda dezakeen/ditzakeen fakultatiboak/ek izenpetuta eta Obra Zuzendariak eta kontratistaren Obra-Ordezkariek ere izenpetuta, non aipatu zirkunstantzia utziko baita jasota, eta jarraian GHKri emango zaio horren berri.
3. Obrak osorik egongo ez balira edo akasduak izango balira, GHKk izendatu duen/dituen fakultatiboak edo fakultatiboek ez du/dute harrera/akta izenpetuko; aitzitik, atzemandako akatsak jaso, akatsak konpontzeko egin beharrekoak zehaztu eta gehieneko epe luzaezin bat (hilabetetik gorakoa izango ez dena) emango dio/diote kontratistari, akats guztiak konpon ditzan.

Aipatutako epea igarota, kontratistak konpondu izan ez balitu agerian jarritako akatsak, beste akta bat jasoko da, eta GHKk kontratua atzera bota ahal izango du kontratistari egoztekoak diren arrazoiengatik, eta bermea bahitu egingo du, dagozkion kalte-galerengatik kalte-ordainen kaltetan izan gabe.

GHKk aldiari behingo informazioa eman beharko du berariazko hitzarmen honen betetze-mailari buruz, gutxienez Kontsortzioaren derrigorrezko bilkuretan.

HIRUGARRENA.- ENKARGUAN AURREIKUSITAKO KOSTUARI BURUZKO PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AURREIKUSPENAK.

Sozietateak onartutako plan ekonomiko finantzarioaren barruan, Eskuzaitzeta eta Arzabaleta eremuetako hornidura elektriko egokia bermatzeko beharrezkoak diren instalazio eta azpiegitura guztien multzoa egitea jasota dago.

Azpiegitura hauek egiteko zenbatetsitako aurrekontua 8,5 milioi eurokoa da. 2016ko martxoaren 22an onetsitako gehigarriaren arabera, kopuru horren % 40 Donostiako Udalari dagokio.

Lehenago aipatu bezala, Eskuzaitzeta eta Arzabaleta eremuetako hornidura elektriko egokia bermatzeko beharrezkoak diren instalazio eta azpiegitura guztien multzoa egitea jasota zegoen plan ekonomikoan, eta beraz, finantziazioa eskatzeko orduan zenbatetsitako aurrekontua hartu zen kontuan.

GHKk, berariazko hitzarmen hau betez, Kongsortzioari eskainiko dizkion zerbitzuen fakturazioa zerbitzuaren guztizko kostuak baldintzatuko du.

Nolanahi ere, GHK, SAUK bere aurrekontuekin eta urteko kontuekin bete behar dituen obligazio formalei dagokienez, Hitzarmen Markoaren hamalagarren klausulan ezarritakoa aplikatuko da.

LAUGARRENA.- GOMENDATU ZAIZKION OBRAK ETA PRESTAZIOAK ASEGURATZEKO GHK-K DITUEN BETEBEHARRAK

Gomendio honen helburu diren obrak eta zerbitzuak kontratatzeke baldintzetan GHK, SAUK jasota utziko du esleipendunek euren gain hartuko dituztela obren eta zerbitzuen exekuzioan eragindako kalte guztiak, hauen izaera eta bolumena direnak direla izanda.

Kontratuan ezarritako baldintzak gorabehera, gomendio honen helburu diren lanetan GHKk Esleipenduna behartuko du segituan finkatzen diren aseguru-polizak kontratatzeraz, lanek eta lanen berme-aldiak iraun bitarteko epe osoan; aseguru-poliza hauen barruan egongo dira bai GHK bai enpresa kontratista bai azpikontratatista bai obra-zuzendaritza, eta baita obran esku hartzen duten alderdi guztiak ere. GHKk zehaztuko ditu onuradunak, eta finantza-entitateak egon ahalko dira berauen artean.

- a. **Erantzukizun Zibileko Asegurua**: gomendatu diren obrak eta zerbitzuak gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eta euren ondasunei eragindako kalte-galaretatik eratorzen den erantzukizuna estaliko du.
- b. **Arrisku Orotarako Eraikuntza Asegurua**: obrari berari eta instalazioei eragindako kalteak estaliko ditu.
- c. **Ingurumen Erantzukizunerako Asegurua**.
- d. **Laneko Istripu Asegurua eta Gizarte Aseguruak langileentzat**, indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez.
- e. Kontratua betetzeko beharrezkoak diren Esleipendunaren jabetzako **materialak, ekipok eta lan-tresnak garraiatzeko aseguru**en kostuak Esleipendunaren kontura izango dira, baita **parte-hartzaile guztien makineriari, ekipoei, eraikuntzako baliabideei, behin-behineko obra-instalazioei eta ondasunei eragindako kalteak estaltzearen kostuak ere, gauza pertsonalenak barne**. Horrenbestez, GHK bere aurkako erantzukizun-ekintza orotatik espresuki libratzea aurreikusiko da.
- f. Gomendatutako obraren eta zerbitzuen exekuzioan erabiltzen diren eta Ibilgailu Motordunen Erabilerari eta Zirkulazioari buruzko Legea bete behar duten **ibilgailu guztiek nahitaez izenpetu beharreko Erantzukizun Zibila**, baita beste edozein aseguru ere, obrarekin erlazionatuta egon ala ez, kontratuan zehar galdagarria baldin bada aplikatzekoa den legeriaren arabera.

BOSGARRENA.- BERARIAZKO HITZARMEN HAU INDARREAN JARTZEKO EGUNA

Hitzarmen hau indarrean jarriko da izenpetzen den egunean bertan.

SEIGARRENA.- OBREN ETA INSTALAZIOEN HARRERA GHK, SAU-REN ALDETIK

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren gomendioa betetzeko orduan GHK, SAUk daukan sozietate mandatari izaerarekin bat etorriz, Eskuzaitzeta eta Arzabaleta eremuetako hornidura elektrikoa egoki bermatzeko beharrezkoak diren instalazio eta azpiegitura guztien multzoari dagozkion obren harrera Kontsortzioaren kontura egingo dela ulertzen da, Kontsortzioak berak bereganatuko baitu berez, nahiz eta eraikuntzako kontratuen exekuzio zuzena eta azpiegituren ustiapena eta balizko ez-betetzeetatik eratorritako ondorioak kontratista esleipendunei exijituko dizkiena GHK, SAU izan.

Izpta.: Jose Ignacio Asensio Bazterra

**GHK, SAUko Administrazio Kontseiluko
Lehendakaria**



Izpta.: Aitor Aldasoro Iturbe

**Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko
Lehendakariordea**

